

Kurduen errealitatea

Kurdistango
egoerari buruzko
erakusketa
Kultur Etxean ▶ 6



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Asteartea ▶ 2007-01-30 ▶ V. urtea ▶ 1.075. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Pistako Espainiako Kopa lortu du Leire Olaberriak

TOLOSA ▶

Garaipen garrantzitsua eskuratu du Tolosa CFk

2-1ekoa Eibar B taldearen aurka ▶ 2

IKAZTEGIETA ▶ Scratch, keirin eta puntuazioko probetan gailendu zen Euskadiko selekzioarekin

MUNDUKOA ▶ Espainiako selekzioarekin Mallorcan dago hurrengo probarako entrenatzen ▶ 5

Giro paregabean azken txanpara heldu dira aurtengo ihoteak

LEITZA ▶ Hotzari aurre eginez, kolorez jantzi zen herria herenegun, karrozen egunean; gaur eskearekin emanen diote amaiera ▶ 4



Emilio Dendaluze. J. SAIZAR

EMILIO DENDALUZE ▶
TOLOSARRA AUSTRALIAN

«Bizitza berri bati ekiteko aukera izan dut Australian»

Irakasle lanetan ari da gaur egun; Tolosara bisita egin berri du eta «txukun» aurkitu du ▶ 7

TOLOSA ▶

Odol emaile izatearen garrantziaz jardun dute Inmakuladan

Organo transplante baten zain 106 egun igarotzen dituzte gaixoek ▶ 3



NEREA LIZARTZA

ARETO FUTBOLA ▶

Laskorainek
4-4 egin du
Kanpezuren
aurkakoan

Hurrengo partida
Ceramicas Nogalesen
aurka jokatuko dute
Usabal kiroldegian

ERREDAKZIOA

Nazional B mailako azken postuetan sailkatuta dagoen Kanpezu arabarren aurka jokatuko duen Laskorainek larunbatean, eta berdinketarekin amaitu zuten.

Norgehiagokaren hasieran tolosarrek jokoaren kontrola hartu zuten eta hainbat aukera garbi «alferrik galdu» eta gero, Yustosek aurkariaren atezaina gainditzea lortu zuen 0-1ekoa ezarriaz. Emaiz horrekin iritsi ziren atsedendira.

Bigarren zatian, Saldiasakaldea areagotu zuen, baina segidan, Kanpezuko 5 zenbakidunak abantaila murriztu zuen. Tolosarrak, hala ere, nagusi ziren jokoan eta gol aukerak bata bestearen atzetik sortu zituzten golean amaitu ez arren. Epailerek orduan area ertzean «beraiek soilik ikusitako» bi falta adierazi zituzten eta Kanpezuk sare barrura sartu zituen bi aukerak. 3-2koa zen, eta gainera, jarraian etxeko taldeak kontraeraso bati esker beste gol bat sartu zuen. Partida amaitu aurretik, orde, Gilek eta Yustosek gol bana egin zuten eta 4-4koarekin amaitu zen azkenean norgehiagoka.

Aste honetako partidari dagokionez, Ceramicas Nogalesen aurka jokatuko du Laskorainek Usabal kiroldegian.

Bestalde, harrobiari begira, Alonsoren mutilen partidua ez zen jokatu eta Pradosek zuzentzen dituen neskek 0-2 galdu zuten.

FUTBOLA ▶

Aurrera egiteko
«behar-beharrezko
garaipena» Tolosak

2-1 irabazi zuen etxean Eibar B taldearen aurka; hurrengo partida, Baskoniaren aurka jokatuko dute tolosarrek

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosa CFk Eibar B taldearen aurka jokatuko duen larunbatean Berazubín eta garaipen berri bat eskuratu zuen, 2 eta 1 irabazi baitzuen.

Kepa Mendizabal entrenatzaileak adierazi duenez, «partida nahiko parekatua hasi zen; gure kasuan, urduri samar hasi ginen jokatzen». Eibartarrek 2 aukera garbi izan zituzten markagailuan abantaila hartzeko, baina ezin izan zituzten gauzatu. Hala, 25. minutuan Tolosako Elolak kórner bat baliatuz lehendabiziko gola egin zuen. Gola sartu ondoren kon-

trolpean eduki zuen Tolosak partida. Dena den, atsedendira 1-0ekoarekin iritsi ziren, hau da ezin izan zuten aldeareagotu.

Bigarren zatian, «lehendabizikoan baino hobe aritu ginen», azaldu du entrenatzaileak. Aukera ugari sortu zituzten balaio sarean sartzeko baina ez zuten asmatu tolosarrek. Orduan, epaileak «inork ikusi ez zuten penaltia» adierazi zuen Tolosaren aurka. Penalti hori Eibarko Albistegik gauzatu zuen. 1-1ekoa zen. Penalti horren ostean aukera garbiak izan zituen Eibarrek, baina ez zituzten aprobetxatu.

Tolosarrak berriro ere jokatu zuten orduan eta partidaren jabetza eskuratu zuten pixkanaka. Norgehiagoka amaitzeko 5 minutu geratzen zirenean Xabi Krespok gol «ikusgarri» bat egin zuen. Kontraeraso batean, areaz kanpotik jaurti zuen Krespok eta eskuadraren sartu zuen balaio. 2-1ekoarekin amaitu zen azkenean partida.

Garaipen honekin gustura dago entrenatzailea; «behar genuen partida bat irabaztea, eta ea horrela pixkanaka goruntz egiten dugun». Hurrengo partida Baskoniaren aurka jokatuko du Tolosak.

XAKEA ▶

Gipuzkoako Taldekakoan aurrera

Etxeko taldeko nagusiek garaipena lortu zuten hirugarren txandan

ERREDAKZIOA

Larunbatean Gipuzkoako Taldekako Ligako hirugarren txanda jokatu zuten herriko bi taldeek etxean eta garaipena eta porrota ikusi zituzten.

Gorengo mailan, Tolosa-Ibarra A taldeak liderraren bisita jaso zuen, Deba taldearena. 2'5-1'5 irabazi zuten etxekoek, R. Etxeberria eta J. Mujikak irabazi, eta M. M. Barojak berdindu eta gero. Mujika izan zen irabazten lehena. Ibarraoako oso irekitze originala erabili zuen

eta hamabost jokaldi aski izan zituzten irabazteko. Etxeberriaren partida luzeago joan zen.

Ezagutzen ez zuten irekitze bati aurre egin behar izan zion eta hasieran denbora asko behar izan zuen behar bezalako jokaldiak egiteko. Pixkanaka, ordea, abantaila lortzen joan zen eta bukaeran bi minutu soilik geratu arren nahikoa izan zituzten puntua eskuratzeko. Azkenik Barojaren berdinketa etorri zen. Partida ongi eraman zuen baina azken uneko akats baten eruz gaitzeko zorian ge-

ratu zen. Aurkaria, ordea, denbora gutxiren faltan zegoen eta berdinketa adostu zuten.

Hirugarren mailan Tolosa-Ibarra B taldeak 1-3 galdu zuen Villabonaren aurka. Partida guztietan etxekoek abantaila lortu arren akatsak egiten hasi ziren bata bestearen atzetik eta azkenean D. Moreauk bakarrik lortu zuen irabaztea.

Datorren igandetik aurrera, Tolosaldeko Eskolarteko Txapelketak hasiko dira Tolosan. Kultur Etxean izango da, lau igandetan 11:00etatik aurrera.

MUSIKA ▶

Kontzertu
didaktikoa
gaur ikusgai,
Gure Txokoan

ERREDAKZIOA

Gure Txokoa elkarteak O+Hatz euskal musika tresnen inguruan sorturiko bikotearen kontzertu didaktikoa antolatu du, gaur elkartean bertan 20:15ean. Txalaparta, trikitixa, alboka, txistua, xirula eta panderoari buruzko azalpen txiki baten ostean, tresna bakoitza entzuteko aukera izango da, eta beste tresna batzuekin uztartuz lau edo bost abestiz osaturiko errepertorio bat entzun ahalgo da.

Ion Garmendia ibartarrak eta Iñaki Plaza urduñarrak osatzen dute bikotea izango da, hain zuzen ere, kontzertu didaktikoa eskainiko duena. Besteak beste, Kepa Junkera eta Ibon Koteronekin jotzen dihardute azken urteetan bi musikariek.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua:

683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun etxea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leizta. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leizta): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

**Kazetari lanetarako
pertsona bat behar du
komunikabide batek.**

• Egunean 6 ordutarako.

**Interesatuak deitu lehenbailehen
661 678817 telefono zenbakira.**



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

GUTUN@K ▶

Joxeluri agurra, eskautzaleen eran

«Yupi ya ya, yupi yupi ya... olerre olerre olerre io io... o Benuno o ie ie o Benuno» eta horrelako doinuak entzun ziren joan den larunbatean Tolosako Oargi elkartearen. Izan ere, han elkartu baikinaren noizbait filosofia baten inguruan aisialdian elkarrekin ibili ginenok, gaur egun jarraitzen dutenekin batera. Aitzakia? *estilo* hori bizirik mantentzeko bere bizitzako 36 urte eman dituenari agurra, omenaldia... egitea. 36 urte!

Olere, olerre, hitz ulertezinak ezagutzen ez dituztenentzat; baina oroimen onez beterikoak eta hunkigarriak, horiekin hazi ginenentzat. Hazi, hezi, partekatu, ikasi. Ondo pasatuz

-Yupi ya ya, gora gora, yupi ya, «orain noraaaa?» Horrela joaten ginen tipi-tapa.

-Hortxe dago gailurra, zer dela-eta beldurra?

Gehienetan izerdi patsetan, baina umore ezin hobean. Irteeretan, asteburuetan, kanpamenduetan, bileretan, baita inauterietan ere. Eguzkia lagun edo euri zaparradari aurre eginez, limoi baten tantak egarria asetzeko nahikoak direla ikasi genuen ondokoak eskua

emanda laguntzen zigun bitartean. Baita gau izartsuetan Hartz Nagusia bilatzen ere, hurrengo eguneko erronkari ekitako lo gelditu baino lehen

Etxeke erosotasunetik kanpo, etxean inoiz egingo ez genituzkeen lanak eginez. Oinetako babek edo motxilaren pisuak eragindako mina eta nekea, ikuskizun ederren aurrean, asko arintzen direla konturatu ginen. Ahaleginak merezi zuela. Naturan murgildu ginen eta guregan harekiko errespetua handituz joan zen. Ia konturatu gabe, gure bizitzako lehenengo erronkak onartzen ikasi genuen eta norberaren mugak gaitzitzen taldeari ahal genuen

na eman genion. Eta taldeari ahal genuena emateari dago-kionez... San Bernardo skaut taldekook garbi dugu bereziki Joxelu Anduezak asko eman diola. Bere txiste eta kantak oraindik gogoan dauzkagu, une txarretan —batzutan ere galtzen ginen, gogoratzten...? hain lagungarriak ziren horiek. Bere alaitasun sanao kutsatuz.

Beno, bada, eskerrak eman nahi genizkiola, gozatu eta ikasi dugun guztiagatik. Zertxobait egingo zuen, bestela... nola arrazoituz larunbatean 80 bat pertsona biltzea?

SAN BERNARDO TALDEKO PARTAIDE
ETA PARTAIDE OHIAK ▶ TOLOSA

TOLOSA ▶

Santa Ageda bezperarako entseguak

Urtero bezala, Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an kantari aterako dira amaroztarrak. Usabal eta San Blas auzoetako baserri eta etxeetara joango dira bisitan. Eta ospakizuna Amarotzen bertan amaituko dute. Hori dela eta, parte hartu nahi dutenentzako entseguak bihar eta ostiralean izango dira. Amaroetako Auzoetxean, 20:00etan. Antolatzaileek auzotar guztiak gonbidatzen dituzte ospakizunetan parte hartzeko.

TOLOSA ▶

Tolosaldeko korrika batzordea bilduko da bihar

Martxoaren 22tik apirilaren 1era ospatuko da aurtien Korrika. Karrantzatik abiatu eta Iruñean bukatuko da 15. edizioa. Hori dela-eta herrietan batzordeak sortzeko bigarren deialdia luzatu du Tolosaldeko korrika batzordeak. Hala, herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte parte hartzera eta beraien herrietan batzordeak sortzera. Tolosaldekoa bihar egingo da Tolosan, 19:30ean. Lizardi gaineko egotizan (lehen AEK zena).

ANOETA ▶

Santa Ageda bezpera kantatuz ospatuko dute

Santa Ageda eguna dela eta, bezperan kantuan aterako dira anoetarrak. Goiz eta arratsalde ibiliko dira herritarrak etxetik etxe abesten. Hori dela eta, parte hartu nahi dutenentzat, ostiralean entseguak egingo dute 20:00etan, Ikastolan.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Inmakuladan emaila izatearen beharra izan dute mintzagai

Emandako datuen arabera, 106 egun igarotzen dituzte gaixoek itxaron zerrendetan, organo transplantate baten zain

ESTI EZEIZA

Pertsona askoren itxaropena zure erabakiaren esku dago lelopean, organu eta odol emaila buruzko jardunaldia izan zen atzo Inmakulada ikastetxean. Saioaren helburua, emaila egiteko beharraz ohartaraztea eta bultzatzea zen. Honetarako, ATCORE elkarteko bi kide etorri ziren beraien esperientzia kontatzeko. Bestetik, Poliklinikako sendagile den Garikoitz Lasa izan zen gaiaren inguruko azalpenak emateko.

Zentru espezializatuetan organo eta ehunak transplantatzea medikuntzaren ohiko praktika da, eta transplantatu ezean hil edo gero eta osasun



Garikoitz Lasa Poliklinikako medikua atzo, azalpenak ematen. E. EZEIZA

egoera eskasagoan biziko lirakeen gaixo askori ezartzen zaie. Aurrerapen tekniko eta farmakologikoei esker, egun, transplantateen arrakasta nabaria da. Datuen arabera, gaixoen %10ak ez du ongi onartzen

organu berria eta hilaibeterako hiltzen da. Beste %70ak, honi esker, bost urte gehiago bizitzeko bermea du, eta %60ak, 10 urtez bizitzeko.

Euskal Herriko biztanleen kasuan, transplantate bat behar

izanez gero, Santandergo (Espainia) Marques de Valdecilla klinikara jo behar izaten dute.

Transplanteak gaixotasun sendaezinentzako irtenbideak dira. Pertsona batek ebakuntza hori gabe bizirik jarraitu ezin duenean bakarrik egiten dira. Dena den, hauek jendearen borondatearen esku daude, transplante gehiago egin ahal izateko oztopo nagusia emaila gutxi egotea delarik. Organoak lortzeko aukerak oso txikiak dira, ospitaleetan hiltzen diren pertsonetatik %1ek baino ez dituelako organoak egoki emateko baldintzak betetzen. Batzabeste, 106 egun igarotzen dituzte gaixoek itxaron zerrendetan, organu baten zain. Eta hauetatik %10 itxaron tarte horretan hil egiten da.

Emaila bat balioduna izan dadin heriotzak ospitale batean gertatu behar du, garun lesioagatik, hemorragiagatik edo traumatismogatik. Bestalde, gizartean ardura gehiago ez izateak eta familiak ezetz esateak areagotu egiten dute arazoa.

Baldintza egokietan hilez gero, bere organoak transplantate batean erabiltzeko borondatea adierazten duen edonor izan daiteke emaila.

urteurrenak ▶

Xabier Lopez-Mendizabal
3. urteurrena

Joan zara baina gure artean izango zaitugu beti

Etxekoak

TOLOSA, 2007ko urtarrilaren 30ean

hilberriak ▶

Isabel Aranburu Etxabe
(Alfonso Muniainaren alarguna)

Atzo hil zen, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—

Bere seme-alabak: Juan Jose (Frantziskotarra), Jose Antonio, M^o Pilar eta Jose Inazio Elias, M^o Lurdes (†); bilobak: Zigor eta Iraia; ahizpa: Margarita; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela GAUR ASTE-ARTEA, arratsaldeko 18:30ean, FRANTSIZKOTARREN elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Urdaneta 3-7^a, I

oharra ▶ Hilbeila Zarauzko Tanatorioan aurkitzen da

ZARAUTZEN, 2007ko urtarrilaren 30ean

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztiaren prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

LEITZA ▶ IHOTEAK

Giro ona eta umorea nagusi karrozetan

Hotzari aurre eginez, kaleak kolore, alaitasun eta umorez bete zituzten

NAIARA GARZIA

Karrozen egun handia izan zen igandekoa. 12:00etan herriko kaleak kolorez bete zituzten, kale nagusia, batik bat, bertan karrozak gora eta behera ibili baitziren. Elurra kentzeko makina, inauteriak eta negua nahasiz, kalean gora eta behera ibili zen, herriko kaleetan gatza eta guzti botaz.

Egun hauetako Euskal Herriko hotzatik haruntza izan zen beste lurraldeetako berorik ekarri zuenik ere Brasilgo eta Afrikako erritmoen laguntzarekin. Zezen-plaza ibiltari bat ikusteko aukera ere izan zuten bertara hurbildu zirenek, betiko toreatzaileen jantziekin.

Ihoteen benetako izaerari helduz, satira, eta neurri batean prozesioei trufa eginez, santu batekin atera zirenak ere izan ziren, Aste Santuko prozesioetan bezala. Santua, ordea,

berezi xamarra zen, ihote garaiko modukoa: San Miguel garagardoa. Imajinazioa erabili eta politika eta sarkasmoa nahasi zituztenak ere izan ziren.

Hotza egin arren, jende asko hurbildu zen karrozak ikustera. Karrozekin batera, Txu-Txu trenaren herria barrena ibili zen, umeen gozamenerako, bai goizez, bai arratsaldean. Karrozen desfilea amaitu ondoren atxaureen herri bazkaria egin zuten, 14:30ean.

Atzo, berriz, baserriek izan zuten protagonismoa, eskean joateko eguna baitzen. Atxaureak Gorritzaran, Arkixkil, Sakulu eta Erreka auzoetara joan ziren puske eskatzea, herriko txistulari eta Incansables txarangarekin. Gaur, berriz, ihoteen azken eguna izanik, goizean goiz, Erasote auzora joango dira eskera, eta honen ondoren umeen egun handia ospatuko dute.

JOXE ANTONIO URKIOLA ▶ IHOTEZALEA

«Zaila da urtero maila altuko karrozak egitea eta hor mantentzea»

Joxe Antonio Urkiola ihotezaleak eta bere lagunek 16 urte daramatate karrozak egiten. Aurten, zezen-plaza bat egin dute.

Zein izan da herriko karrozen urterik onena?

Duela 6 urte asko atera ziren eta oso politak. Zaila da urtero maila altuko karrozak egitea eta hor mantentzea.

Noiz hasi zineten aurtengoa prestatzen?

Eguberri aurretik. Ideia, berriz, azaroan bururatu zitzaizgun.

Zenbat lagun artean egiten duzue?

6 bikote aritzen gara.

Urte hauetan egin dituzuen karroza guztietatik zein izan da politena?

Piraten barkua. Ikaragarritzko lana izan zuen.



N. GARZIA

Urtero ateratzen zarete. Zer-gatik?

Gustatu egiten zaigu. Egun horretan beti elkartzen gara. ◀



Satira. Ihoteen izaera berritsuan oinarrituz, santu baten prozesioa egin zuten gazte hauek. Santuak santu, iganderako gorraipatzeko aukeratu zutena San Miguel izan zen. Ez ordea Mikel Deuna bezala ezagutzen dena, San Miguel garagardoa baizik. . N. LIZARTZA



Afrika. Neguko hotzari aurre egiteko Afrikako danborren erritmoa eta bertako kolore alaiak aukeratu zituzten batzuk. N. LIZARTZA



Brasil. Beste batzuk, berriz, ozeanoaren beste aldera jo zuten eta hango perkusio hotsak bertaratu zituzten. N. LIZARTZA



Zezen-plaza. Herriko festeei aurre hartu eta zezen-plaza bat eraiki zutenak ere izan ziren. Zezenaz gain toreatzaileak ere bertan ziren, azken hau ohiko traje distiratsurekin. N. LIZARTZA

IKAZTEGIETA ▶ TXIRRINDULARITZA

Olaberriak Espainiako Kopa lortu du hiru probak irabazi ostean

Kataluniako selekzioa izan zen onena Tafallan, eta bigarren Euskadi geratu zen, Ainhoa Pagola tolosarra ere han zela



Olaberriak Espainiako Kopa lortu du Euskadiko selekzioarekin. HITZA

NEREA URBIZU

Leire Olaberria ikaztegiatarrek pistako Espainiako Kopa eskuratu zuen Euskadiko selekzioarekin batera, Tafallako Miguel Indurain belodromoan.

Sailkapen orokorrean Kataluniako selekzioa izan zen onena, Euskadiren aurretik. Beraz, iaz bezala geratu da sailkapen orokorra. Leire Olaberria, berriz, emakumeetan onena izan zen.

Banakakoetan Leire Olaberriak keirin, scratch eta puntuaziokoak irabazi zituen, hau da, parte hartu zuen guztietan txapela irabazi zuen.

Tolosa CF taldeko Ana Usabiaga ordiziarrak juniorretan hirugarren egin zuen keirin proban. Ainhoa Pagola tolosarra ere izan zen elite mailan parte hartzen, Leire Olaberriarekin batera, Euskadiko selekzioarekin.

Gizonen artean 200 eta 500 metrotako abiaduran eta keirin probetan Hodei Mazkarian nafarrak eskuratu zuen hirugarren postua. Txapelduna Jose Antonio Escuredo katalandarra izan zen: fondoko probetan, berriz, Sergio De Lis eta Iñaki Anzizar eskuldunek 4. eta 5. egin zuten.

Puntuazioko proban Eustrak

taldeko Unai Elorriagak laugarren egin zuen. Azkenik, madison proban Aitor Alonsok eta Unai Elorriagak eraturako bikotea lehena izan zen.

Hauek izan ziren parte hartu zuten selekzioak: Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Katalunia, Nafarroa, Valentzia, Balearrak, Murtzia, Madril eta Euskadi: Andaluziak ez du aurten parte hartu.

Atsedenik ez

Leire Olaberria atzo Espainiako selekzioarekin batera Mallorkara joan zen pistako mundiala prestatzeko asmotan. Han ostiralera arte egongo da kontzentrazioan. Larunbatean, berriz, gizonezkoen Euskadiko Txapelketa izango da Anoeta belodromoan, eta «Leire Olaberria han izango da: ez txapelketan parte hartzen, proba bezala egiten baizik, berak nahi duelako, probatzearen», zioen Daniel Larruskainek, Cespa-Eustrak taldeko antolatzaia idazkariak, hain zuzen.

Otsailaren 17an Euskadiko 6 orduetan ere izango da: «6 ordu hauetan denetarik egoten da; lehiaketa baino, festa egun bat da». Otsailaren 21ean Manchesterrera —Ingalaterra— joango da Munduko Kopako azken fasea egitera.

Horren ondoren eta aste berdinean Espainiako Txapelketan parte hartuko du Euskadiko selekzioarekin.

TOLOSA ▶ AHT



Larratz belazea zabortege izango litzateke, AHT proiektua aurrera eramanez gero. N. URBIZU

Jardunaldi ezberdinak izango dira aste honetan

Kultur Etxean izango dira arratsaldero

N. URBIZU

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak aste honetan zehar hainbat jardunaldi egingo dituzte AHTren inguruan. Denak Tolosako Kultur Etxean egingo dituzte.

Gaur 19:30ean mahai ingurua egingo dute, *AHTren inguruko herri kontsultak eta demokrazia* izenekoak, hain zuzen. EHUko Iñaki Barcena

irakaslea, Josu Ormaetxea Urbinako alkatea, Danel Etxeberria —Itsasondoko zinegotzia— eta Aramaioko kide batek parte hartuko dute.

Bihar, berriz, leku eta ordu berean *AHT eta eskualdeko harrobiak: txikizioa gelditu!* izena duen mahai ingurua egingo dute. Kasu honetan, Geziako kide den Tere Jauregizarrek eta biologo batek bideratuko dute mahai ingurua.

IKAZTEGIETA ▶

Otsailaren zeharreko KZgune egunak

Ikaztegiatiko kiroldegian otsailako Kzguneko ordutegiak hauek izango dira: otsailaren 5ean, astelehenean, hain zuzen, 09:00etatik 13:00etara izango da eta *posta elektronikoz komunikatu* landuko dute. Mintegiarren ordutegia 10:00etatik 12:00etara izango da. Otsailaren 19an ordutegi berdinarekin *asteburu bat Euskal Herria* gaia jorratuko dute.

ALEGIA ▶

Argazkigintzaz ikasteko ikastaroak

Ordenagailu bidezko argazkigintza eta argazki-ukitu ikastaroan izena emateko epea Alegiko Kultur Etxean bihar bukatuko da. 18:00etatik 20:30era asteazkenetan izango dira klaseak eta lehenengo otsailaren 7an izango da, guztira 30 ordu eginez. 30 euro ordaindu behar da. Ikastaro hau Cebanc-*cdak* eta Alegiko udaletxeak antolatuko dute.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko storb. 47- behean
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: emio@emioemio.com
www.inmoemio.com

Anoeta. Duela gutxioko eraikuntzan duplexa salgai. Garaje ibxia aukeran. Oso egoera onean.
Amezketza, Berastegi, Hernialde, Tolosa eta Zizurkil. Hainbat etxe bifamiliar eta abiki, eraikuntza berrikoak eta bigarren eskukoak.
Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin.
Ibarra. Plaza inguruan. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela; dena kanpoaldera. 180.300 euro.
Iruña. Ebezarreta. 3 logela eta 2

bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.
Iruña. Labadero, 100 m². 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela.
Legorreta. Trasteleku salmentan. Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.
Tolosa. Berazubi. Igogailu proiektua onartuta. 228.384 euro.
Tolosa. Eraikuntza berri hainbat etxebizitza salgai. Bi, hiru eta lau logela aukeran. Garajeekin.
Tolosa. Beotibar. 36 m². Altua, 150.000 euro.
Tolosa. Zumalakarregi. 98 m²ko pisu zoragarria salgai. Ikuspegi ezin

hobeak. Estreinatze. Garajea aukeran.
Tolosa. Zumalakarregi. 92 m². 3 logela, 2 bainugela. Guztiz berrituta eta estreinatze. Garajearekin.
Tolosa. Pedro de Tolosa. 83 m². Distribuzio era ezberdinak. Garajea aukeran.
Tolosa. Kondeaneko aldapa. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Igogailuarekin.
Tolosa. San Frantzisko. 50 m²ko apartamentu berritua salgai. Igogailu, berokuntza eta garajearekin.
Tolosa. SAM. Iskineko etxe atxikia salgai. Porbe eta guzti dauka.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 125 m²ko pisua salgai. Egoera oso ona. Garajea aukeran.
Tolosa. Erabat akondizionatuta 120m²ko lokal-bulegoa alokatzen da. Zonalde bikaina. Egoera ezin hobea. Oso argitsua eta leiho handiekin. Aire girotua. Egokia edozein bulegorako, mediku kontsultarako, delegazioentzat.
Zizurkil. Etxe atxikia salgai. Terrazarekin eta lorategiarekin. Ezin hobeto. Orientazio bikainarekin.
Hernani. Akraregi. Errepidearen aldamenean. 385 m² dituen pabilioi industriala salgai. Estreinatze.

IBARRA ▶ ERAKUSKETA

Kurduen egoera lau haizetara

Kurdistango errealitatea ikusgai dago Kultur Etxeko erakusketan ostiralera arte

MADDI SOROA

Uzturpe ikastolako Kultur As-
tea aurrera doa. Mendi mar-
txak eman zion hasiera here-
negun. Atzo, adimen emoziona-
laren inguruan mintzatu zen
Maria Jose Ortiz; eta gaurtik
aurrera, Kurduen mundura bi-
daia egiteko aukera izango da
Kurduak elkarteak Kultur Etxe-
an ikusgai jarri duen argazki
erakusketaren bitartez.

Kurduak elkarteak kazetari
eta idazle ezberdinez osaturi-
ko elkarte da. Guztiak izan
dira Kurdistanen eta gertutik
ezagutzen dute bertako egoe-
ra. Karlos Zurutuza elkarte-
kide eta Uzturpeko irakasle
denak argi azaldu du elkar-
tearen helburua zein den, «kur-
duen egoeraren berri eman
nahi dugu». Zergatiaren hari-
ra, «ezezaguna den hiria izate-
az gain, asko sufritu duen he-
rrialdea» dela adierazi du Zu-
rutuzak, horregatik «jendeak
egoera zein den eta nolakoa
den ikustarazi nahi dugu, ber-
tako errealitatea erakutsi».

Kultur Etxean ikusgai dago-
en erakusketak Espainian zehar

ibili izan da azken bi urteotan,
besteak beste, Bartzelona, Ma-
dril edota Santanderren. Ber-
taratzen denak, Kurdistango
argazkiak ikusi ahal izango
ditu eta bertako eguneroko bi-
zitza ezagutzeaz gain errealita-
tea ikusi eta ezagutuko du».

Kurdistan ezezaguna

Kurdistan Asia mendebalde-
an kokaturiko eskualdea da.
Estaturik gabeko Kurdoen
etnia bizi izan da bertan eta
horrek eman dio izena. Bere
lurraldea Turkia, Irak, Iran
eta Sirian banaturik dago eta
36.000.000 pertsona inguru
bizi da bertan. XIX. mendean
otomandar inperioa erortze-
an, Kurduak estatu ezberdi-
nen artean banaturik geratu
zirenez, estatu berrien politi-
ka, interesa eta estatu propioa
sortzeko aukerarik gabe geratu
ziren. Ordutik, autodeterminazioaren alde
ari dira lanean. ◀



Kurduen Gernika. Kurdistango armadek Halabja bonbardeatu zutenean 5.000 hildako izan ziren. A. GRAÑO



Desagertuen drama. Dirurik gabeko familia. M. M



Dogubayaziten. Jantzi herrikoiekin dantzan. M. M

MANUEL MARTORELL ▶ KAZETARIA ETA IDAZLEA

«Kurduak autonomia nahi dute eta horregatik erahiltzen dituzte»

Manuel Martorell (Iruñea, 1951) kazetaria eta idazlea da. Bi liburu idatzi ditu Kurdistanen inguruan, *Los Curdos, historia de una resistencia* eta *Curdistan, viaje al país prohibido*. Horretaz gain, hamaika lan egin ditu komunikabide mota ezberdinetarako.

Kurduak elkarrearen helburua azaltzerik bai?

Euskal Herria eta Kurdistan harremanetan jartzea da helburu nagusia, baita Zibilizazioen Aliantza Gobernuan ezezik herrietan ere lantzea.

Zein da Kurduak bizirik duten egoera?

Duela 4.000 urtez geroztik Irak, Iran, Siria eta Turkian ezarri ziren Kurduak. Oso lur aberatsa da bai petroleoa dagoelako, baita ura dagoelako ere. Horretaz gain, balio militar eta estrategiko handia hartu du lurrak. Kurduak, ordea, ez dute estaturik eta ondorioz, ezta eskubide ekonomiko edota kulturalik ere.

Estaturik ez dagoen errealitatearen amesten dute orduan?

Badakite hori lortzea oso zaila dela, Turkia, Siria, Irak eta Iran zatikatu beharko bailirateke. Kurduak ez dute independentziarik eskatzen, Espainian dagoen bezalako autonomia eta honek dituen eskubideak es-

katzen dituzte. Soilik Iranen, ordea, 9.000.000 pertsona hil dituzte hori eskatzeagatik, gbernuek autonomi eskubidea ukatzen baitiete.

Euskal Herriak ezagutzen al du Kurduen egoera?

Iraken gertatzen ari denagatik jendeak kurduekin zerikusia duen oro gaitzesten du baina hori Ekialde Ertaineko errealitatea ukatzea litzateke. Badirudi Ekialde Ertainean guztiak islamista integristak direla baina errealitatea bestelakoa da. Kurdistanen erlijio ezberdin asko dago baina hori ez da beraien lehentasuna, estaturik eta kultura baizik.

Kurdistango errealitatea da...

Sadan Husseinen gobernuak herrialde kurdua desagertzea izan du helburutzat. Hori dela eta 180.000 lagundik gora erahil eta 8.000 herritik gora suntsitu zituen 80. hamarka-



HITZA

dan, nazien holokaustoaren ondoren erahiltzarik gehien jasandako bigarren gertaera bilakatu. Kurduak ez dute talde armaturik, soilik autonomia nahi dute guk daukagun bezala, eta horregatik egunero erahiltzen dituzte eta euren herriak suntsitzen dituzte. ◀

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Pago egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Ebera entregatzen da. 615 75 57 62.

Autoa. Seat Ibiza. 5 urtekoa. 75.000km. 665 70 82 08.

LANA

Sukaldari laguntzaileak. Eskoletarako, udaletarako. Deitu 943 44 48 66ra.

Gidariak. Erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

EMILIO DENDALUZE ▶ TOLOSARRA AUSTRALIAN

«Australian bizitza berria hasteko aukera izan dut»

Kirola eta abentura erabat utzi gabe, irakasle lanetan ari da gaur egun; Tolosa «txukun eta polita» aurkitu du egin berri duen bisitan eta «erreferentzia» du

JOXEMI SAIZAR

Bizitza berria hasi du Australian Emilio Dendaluze Iturralde (Tolosa, 1962). Duela hamar urte joan zen bidaiari eta abentura kirolzale hura aita, irakasle eta kristau fededuna da gaur egun, beste zaletasun haiek alde batera utzi gabe. Eguberrien inguruan ozeanoaren alde honetan egin duen egonaldia aprobetxatu du bere bizimodu berriari buruz aritzeko.

Zenbat denbora Tolosara itzuli gabe?

Duela 9 urte etorri nintzen azkeneko, baina orduan burdindegia saldu eta negozio kontutan aritu ginen, lasai ibiltzeko denborarik izan gabe. Aurrekoan, duela 13 urte, egon ginen lasaiago. Bi alaba ditugu eta hau ezagutzea nahi genuen, baina ez oso umetan, bestela ez zuten ezer gogoratu gero. Emaztearen —australiarra— gurasoak ere gurekin etorri dira.

Alaba batek arazo bat dauka jaiotzetik.

Kromosoma arazoa du Ainhoak, sindrome berezia da, munduan ez dago beste bat horrelakorik. Ezin du zutik jarri, giharreak oso ahulak ditu gorputz osoan eta berarekiko komunikazioa oso oinarrizkoa da: begiradak eta ahoaren eta buruaren mugimenduak. Eskolara joaten da karro batean eta laguntza du, integratuta daude.

Nola aurkitu duzu Tolosa?

Asko ibili naiz. Oso txukun aurkitu dut, oso polita udaletxearen inguru berri hori. Pintxo bat hartzera joan ginen eta tabernan tabernari bera zegoen, 13 urte zaharragoa. Asteasuarra taberna zen. Niretzat erreferentzia puntuak dira. Hori aurkitu nahi nuen. Australia herri oso dinamikoa da, ez da hemen bezala, asko aldatzen da dena: ez bakarrik etxeak, errepideak, jendea asko mugitzen da. Familiako sustraiak ez daude, orokorrean. Familia da sustraia, ez herria. Eta hemen herria eta familia dugu. Tolosarra naiz eta erreferentzia puntu horiek behar ditut. San Frantziskotik Uzturte ikustea niretzat sekulakoa da. Hemen bizi zarenean ez zara konturatzen, baina... Australian mendia



JOXEMI SAIZAR

EUSKARA

«Aldaketa handia euskararen nabaritu dut, toki guztietan egiten da orain, batez ere beste herrietan»

urruti dago. Mendiko bizikletaz Alegia, Larraitz eta Gaintzara joan ginen. Gauza horiek orain pila bat apreziatzen ditut. Sustraiak sustraitzea deitzen diot. **Zer egin zaizu delgarriena, harrigarrena?** Ezer ez. Dirua aldatu da, euroarekin ez naiz akelaritzen. Duela 9 urte etorri nintzenezan dolarra 100 pezeta zen, eta nahiko ondo zegoen aldaketa. Orain dolarra eta 70 zentimo behar ditugu euro bat erosteko. Aldaketa izugarria da.

Eta bizimodua, aldatu egin al da?

Beti bezala da, betiko martxan. Australiarekin konparatuta, hemen jendeak uanean unekoa bizi du, han lasaiago. Etxeak ere desberdinak dira, han etxea irla bat da. Aldaketa handia euskararen nabaritu dut, toki guztietan egiten da orain. Tolosan lehen nahiko normala zen,

EGOERA POLITIKOA

«ETAk su-etena deklaratu zuenean negar egin nuen; kanpoan egonda ere sentimendua oso indartsua da»

baina beste herri askotan ez. Bestalde, orain goardia zibil gutxiago ikusi dut.

Nola jarraitzen duzu hementiko egoera politikoa?

ETAk su-etena deklaratu zuenean negar egin nuen. Hain urrutiko egonda, oso gertu sentitzen nuen. Kanpoan zaudela gauza horiek apreziatzen jakiten duzu. Nire sentimendua oso indartsua da kanpoan egon arren.

Zer egiten duzu Australian?

Kirol eta kanpamendu begirale nintzen, baina titulua eskatzen zidaten eta Newcastleko unibertsitatean Magisteritza ikasi nuen. Bukatu eta lana berehala bilatu nuen, etxetik gertu gertu, Ainhoa joaten den eskola kristaun. Frantsesa, matematika... nahiko irakasle polifaztuko behar zuten eta hartu nintzen. Orain 5. eta 6. go mailakoak ditut nahastuta gelan.

BIZITZA

«Orain beste zentzua du bizitzak niretzat; hau parentesia da, ondorengo bizitzan sinesten dut»

Erijiok garrantzia handia al du eskolan?

Bai. Ni kristaua naiz eta Lianne ere bai. Lehendik ere, Ingalaterran egon nintzenezan, kristau esperientzia bat izan nuen. Eskola horretan lan egiteko kristau izan behar du, baina ez hemen bezala, elizara joaten dena bakarrik, hori ez da kristautzatez niretzat, han apaizaren aurrean frogatu egin behar duzu kristautza zarena. Eta hori klasean bizitzen da, irakasgai guztietan.

Lanaz aparte, kirola eta abenturarekin jarraitzen al duzu?

Pixka bat jarraitzen dut. Yosemiten eskalaten aritu ondoren bizkarra ukituta daukat. Bi ebakuntza izan ditut. Bela klaseak utzi behar izan nituen. Orain familiarekin denbora asko pasatzen dut eta asko gozatzen dut. Denbora dudanean, bi astez behin edo, eskala-

tzera edo bizikletaz ibiltzera joaten naiz. Belauntzian ibiltzea gustatuko litzaidake. Submarinismoan argazkiak ateratzen ibiltzen naiz. Udan arrantza egiten dut.

Beraz, erabat finkatuta zaudete han?

Bai, behin herria utziz gero ezin duzu eduki hanka bat hemen eta bestea han. Erabaki egin behar duzu. Hasieran emazteak hona etorri nahi zuten hura irla bat delako, isolatuta dagoelako, baina Ainhoarengatik han gelditzea erabaki genuen. Hemen gozatu batzuk gustura hartuko nituzte han: bizimodu, kaleko giroa, poteoa... Bestalde, han natura izugarria da eta askatasun handia dago. Hemen fitxatuta gaude eta jende guztiak espero du portaera jakin bat. Australian bizitza berria hasteko aukera izan dut. Hemen nuen bizitzarekin ez nengoen kontentua, ez ninduen betetzen. Eta bizitza berri honenkin pozik nago. Orain etorriko banintz Tolosara askoz zailagoa izango litzateke niretzat Emilio berria izatea, jende guztiak Emilio zaharra ezagutzen duelako.

Gustura bizi al zara gaur egun?

Bizitzan izan ditudan arazoekin —aita eta ama hil, alaba hala jaio— triste bizi beharko nuke, errua norbaiti botatzeko arrazo pila izango nituzke, baina ez da horrela. Erijiok heldu diot eta lehentasunak aldatu egin ditut. Zertarako gaude bizitza honetan? Une honetan ez nago diru gehiago irabazteko, eskaladan 8. maila egiteko edo munduari buelta emateko belauntzian. Gustatuko litzaidake, baina orain beste zentzua dauka bizitzak niretzat. Jesusegandik ahal den gertuena bizi nahi dut eta bide horretan pozik bizi naiz. Niretzat hemengo bizitza hau parentesia da eta hau bukatzen denean eternidadea hor dago eta hor non egon nahi dudana badakit. Ondorengo bizitza horretan sinesten dut.

Zain asmo duzue etorkizunarako?

Filipinetako haur bat adoptatu nahi dugu. Lianne Errumanian misiolari bezala aritu zen lanean, ospitalak egiten. Mozkor batek autoz jo eta senarra eta beste bat hil zituen eta bera zauritu. Hango umezurtztegietan haur asko ikusi zituen eta beti haur bat adoptatu nahi izan du. Guk hainbeste gauza edukitzea eta ezer ez konpartitzea pakatua da. Orain beste gauza batzuk konpartitzen ditugu. Adoptatzearena beste bide bat da. Manilan eskolak erakitzen dituen erakunde batean gaude sartuta. Behar handia dago han.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Tolosa. AHTren inguruko herri kontsultak eta demokrazia mahai-ingurua Kultur Etxean 19:30ean.
Ibarra. Santa Ageda bezperarako Santa Ageda Eskea antolatuta du Hauspoa elkarteak. Entseguak gaur, bihar eta etzi izango dira 20:00etan udalebe azpian.
Leitza. Ihoten egitarauaren baitan: baserrietako eskea 09:00etan, Popi, Zarratrako eta Fer pailazoak zinean 11:30ean, bazkaria 14:30ean, makillaje tailerra 15:00etan udaltxean, umeen kalejira 17:00etan, txokolatada 18:00etan eta Gau Bela 19:00etan eta 23:00etan Karrapen.
Alkiza. Santa Ageda bezperan abesten ateratzeko entseguak izango da 20:30ean Kultur Etxean.
Tolosa. O+Hatz proiektuaren kontzertu didaktikoa, Ion Garmendia eta Iñaki Plazaren eskutik Euskal Herriko soinu tresnak erabiliz. Gure Txokoa elkartean 20:15ean.
Tolosa. Bake Astearren baitan, Hirukide ikastetxeko ikasleek bakearen aldeko ekitaldia izango dute Trianguloan 12:00etan.
Tolosa. Jolas Kooperatiben tailerra 6 eta 12 urte arteko haurren gurasoentzat Kultur Etxean 18:30ean Olatz Aldabaldetrekuko pedagogoa eta Kometako kidearekin, Uzturpen Kultur Astean.
Tolosa. Arpegi taldearen Ostiral Meheko jaialdirako sarrerak salgai Cantabrico, Triangulo eta Meson Atodon.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 676013.
 Lekunberri. Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren erreposoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (erreplikapena).
 20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.
 21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zuri ala gorri, gozo-gozo

TOLOSA ▶ Babarrun, gozotegi, sukaldari eta erretegiak Sabadellen izan dira Sukaldaritza Astean; Kataluniako babarrunaren ezaugarriak ere ezagutu dituzte



Babarrunaren kofradiak kolorez jantzi zuen topaketa; Josemi Gomez Turismo zinegotzia ere izan zen. HITZA



60 lagun inguru bildu ziren Sabadellen, babarrun zuriaren eta beltzaren ezaugarriak ezagutzeko. HITZA

ERREDAKZIOA

Tolosako babarrunak bat egin zuten joan den asteburuan Kataluniako produktuekin, Sabadellen (Herrialde Katalanak) eginiko topaketan. Hango babarrunen, Mongeta del ganxet izenekoak, ezaugarriak ezagutu eta gure babarrunenak ezagutzera eman zituzten bertan. Roberto Ruiz Fronton jatetxeko sukaldaria izan zen, hain zuzen, Tolosako ikur den babarrunaren nondik norakoak azaldu zituen, bertaratu ziren 60 lagunengana. Ezaugarri desberdinak dituzten arren —kataluniarra zuria eta azal finekoa da— bi babarrunak nekazaritza produktutzat onartzen dituzten Slow Food-aren parte dira.

Julian erretegiako Matias Gorrotxategi eta Nicolas erretegiako Pedro Ruizek ere ez zuten hitzorduan hutsik egin eta bertan izan ziren, txuletoiak sukaldatzen, nola ez Tolosar erara, hau da, kogoiloz eta Lodosako piparrez lagunduta, euren ukitu majikoarekin. Txuletarekin ostean, berriz, ezin falta Tolosako xaxuak, teilak eta zigarrilloak. Herrietako hainbat agintaririk ere parte hartu zuten, besteak beste, Tolosako Turismo zinegotzi Josemi Gomezek eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza idazkari nagusia.

AGURRAK ▶

URTE ASKOAN
Tere Albizu (Tolosa).
 Zorionak familiarren partetik.

URTE ASKOAN
Egoitz Puldain.
 Gaur 7 urte. Zorionak zuten familiarren partetik.

URTE ASKOAN
June Intza (Villabona). Gaur 6 urte. Muxu handi bat izeba Marixuren partetik.

ZORIONAK
Beñat Intza (Villabona). Gaur 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat izeba Marixuren partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tarte